

'Hizkuntza gutxituen garapena eta euskal esperientzia' mahai ingurua izango da Tolosan

Herri indigenetako lau bisitariak parte hartuko dute ostegunean Errotan egingo den saioan.

Tolosa. Hizkuntza gutxituen garapena eta euskal esperientzia izenburupean mahai ingurua iragarri dute datorren ostegunean, 19.30etik aurrera, Tolosako Errotako haur liburutegian. Mahai inguru hau Garabide elkarteak eta Tolosako Udaleko Euskara batzordeak antolatu dute elkarlanean.

Hala, Garabide elkartearen bitartez, hiru astez Euskal Herrian dauden herri indigenetako bisitarietako batzuek hartuko dute parte saioan. Jorratuko den gaia, herri indigenetako hizkuntza gutxituen garapena izango da.

Hain zuzen ere, Jacqueline Caniguan Caniguan maputxea (Txile), Salustiano Ayma Morales aimara (Bolivia), Luis Segundo Cesar Pilataxi Lechon kitxua (Ekuador) eta Sonia Salomé Raymundo González maia (Guatemala) dira parte hartuko duten lau bisitarien izenak. Begirada indigena batetik, beren herrietako hizkuntzek dute garapen prozesuaz arituko dira.

Mahaikideek ibilbide zabala dute beren herrietan, kultura nahiz hizkuntza elkarte eta mugimenduetan. Beraz, ibilbide aberasgarri hori aprobetxatuz beren herrietan hizkuntza gutxituek duten garapenaren gainean hausnarketa egingo dute.

Euskal esperientzia

Bestalde, euskal esperientziak ere izango du bere tarteak; euskalgintza erreferentzi hartuta.

Izan ere, Garabide elkarteak euskalgintza abiapuntu hartuta garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuarekin lankidetzak bideratzeko jaio da. Hain zuzen ere, kooperazio ildo berri bat aurrera eramanez ahal izateko; kooperazio linguistiko-identitarioa.

Hala, lankidetzari hasiera emateko azaroaren 12tik 30era Hizkuntza eta Herrien arteko I. Truke Programa gauzatzen ari dira. Hegoaldeko hizkuntza minorizatutako komunitateetako bederatzi bisitari dabilta Euskal Herrian, euskalgintzaren (egunkari, telebista, ikastolak, elkarteak, bertsozale elkarteak, Iparraldeko irratiak...) esperientzia zuzenean ezagutu dezaten.
>m.s.s.